

DESKRIBAPENA

Gure proiektua altzari eta objektu desberdinen sorketan datza betiere plastikoa erabiliz osagai nagusi bezala. Etxean eta egunerokotasunean erabiltzen ditugun materialak sortu nahi ditugu baina besteengan desberdintzen dituen ezaugarri batekin: plastikoa. Originalak izango dira eta oso erabilgarriak. Beste osagaiak, margotzeko eta ondo muntatzeko izango dira. Adin guztietarako baliagarriak izango diren produktuak sortuko ditugu, gazte nahiz helduentzat.

Gure helburu nagusia da, gure planetan dagoen izugarritzko plastiko kantitatea murriztea eta erabilgarria izango den zerbait sortzea. Beroketa globala, klima aldaketa, Lurraren suntsiketa... direla eta, proiektu honek, orain eta etorkizunean dauden eta egongo diren aldaketa eta arazo larriak murriztuko ditu. Zer egin ez dakigun plastiko soberakinei eta gure ozeanoetan kantitate ikaragarrian dauden horiei, etekina atera nahi diegu.

Denda fisikoa izango dugu eta dendan bertan edo gure web-orriaren bitartez egin ditzakete eskaerak. Gu izango gara altzariak diseinatuko ditugunak eta bezeroek eskuragarri izango dituzte katalogo eta gure web-orriaren bitartez. Hala ere, gure bezeroek diseinuan parte hartzeko aukera izango dute, haiek dakite eta haien beharrak asetzeko behar dituzten ondasunak. Haien iritzia kontuan izango dugu. Beraz, harreman estua dugu haiekin.

Plastikoa lortzeko, zenbait gune jarriko ditugu, hala nola, supermerkatuetan, eskoletan, hainbat zentroetan, green peace elkartearekin eta baita zabortegiekin ere. Beraz, modu batean, gure bezeroak, gure enpresaren hornitzaileak izango dira.